

[a]
a z t i k e r

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Andoain
2009/IV/30

KARKARA ALDIZKARIA:
IRAKURLEAK ETA IRITZIAK.
ORIO-AIA, 2009
-IKERKETAREN EMAITZEN TXOSTENA-

KARKARA

[a]
a z t i k e r

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Andoain
2009/IV/30

KARKARA ALDIZKARIA:
IRAKURLEAK ETA IRITZIAK.
ORIO-AIA, 2009
-IKERKETAREN EMAITZEN TXOSTENA-

LAN TALDEA:

IÑAKI IURREBASO BITERI

AMAIA ELIZAGARATE SAGASTIBELTZA

IGOR ORTEGA SUNSUNDEGI

AINHOA LASAGA ARRESE




AURKIBIDEA

SARRERA	6
0. METODOLOGIA OHARRAK	8
1. KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURA	12
1.1 KARKARA EZAGUTZEN DUTE.....	13
1.2 INOIZ IRAKURRI EDO GAINBEGIRATU DUTE	15
1.3 KARKARA IRAKURTZEKO OHITURA	17
1.4 KARKARA IRAKURTZEN EMATEN DUTEN DENBORA	19
1.5 ALDIZKARIAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK KONTUAN HARTUTA, SAILKAPEN OROKORRA	21
1.6 KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK: KOPURU ABSOLUTUEN ESTRAPOLAZIOA	23
1.7 KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA	25
1.7.1 SEXUA.....	26
1.7.2 ADINA (HERRITAR GUZTIAK)	27
1.7.3 ADINA (ELEBIDUNAK)	28
1.7.4 IKASKETA MAILA	29
1.7.5 HIZKUNTZA-GAITASUNA	30
1.7.6 BEZPERAN ETB-1/ETB-3 IKUSI ZUTEN (EUSKALDUNAK).....	31
1.7.7 AZKEN HILABETEAN BERRIA IRAKURRI ZUTEN (EUSKALDUNAK)	32
2. KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA.....	33
2.1 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (I): ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK	34
2.1.1 SEXUA.....	35
2.1.2 ADINA	36
2.1.3 HERRIA	37
2.1.4 IKASKETA MAILA	38
2.1.5 LAN-EGOERA.....	40
2.2 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (II): ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK	42
2.2.1 HIZKUNTZA-GAITASUNA	43
2.2.2 EUSKARAZ ULERTZEN DUTE.....	44
2.2.3 EUSKARAZ HITZ EGITEN DAKITE.....	45
2.2.4 ELEBIDUNAK ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ	46
2.2.5 EUSKARAZ IRAKURTZEN DAKITE	47
2.2.6 ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURTZEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ	48
2.2.7 EUSKARAZ IDAZTEN DAKITE.....	49
2.2.8 LEHEN HIZKUNTZA	50
2.2.9 HIZKUNTZA-EREDUA IRAKASKUNTZAN	51
2.2.10 ETXEKOEN ARTEAN ZENBAT EUSKALDUN	52
2.2.11 ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA.....	53
2.2.12 ETORKIZUNEAN EUSKAL HERRIAN HITZ EGITEA NAHIKO LUKETEN HIZKUNTZA.....	54
2.3 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (III): GAINERAKO KULTUR KONTSUMOEN ARABERA	55
2.3.1 TELEBISTA IKUSTEKO ETA ZEHAZKI ETB-1/ETB-3 IKUSTEKO OHITURA.....	56
2.3.2 IRRATIA ENTZUTEKO OHITURA, HIZKUNTZAREN ARABERA.....	57
2.3.3 EGUNKARIEN IRAKURKETA OROKORREAN	58
2.3.4 EGUNKARIEN IRAKURKETA, EGUNKARIZ EGUNKARI	59

2.3.5	EUSKARAZKO BESTELAKO ALDIZKARIAK	62
2.3.6	LIBURUAK OROKORREAN	63
2.3.7	LIBURUAK EUSKARAZ	64
2.3.8	LIBURUEN KONTSUMO ERDALDUNA VERSUS EUSKALDUNA	65
2.3.9	INTERNETEN ERABILERA	66
3.	KARKARAREN SARBIDEA.....	67
3.1	KARKARAREN SARBIDEA (I): DATU OROKORRAK.....	68
3.2	KARKARAREN SARBIDEA (II): ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOEN ARABERA	70
3.2.1	SEXUA.....	71
3.2.2	ADINA	72
3.2.3	HERRIA	73
3.2.4	IKASKETA MAILA	74
3.2.5	LAN-EGOERA.....	75
3.3	KARKARAREN SARBIDEA (III): ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA	76
3.3.1	HIZKUNTZA-GAITASUNA	77
	EUSKARAZ HITZ EGITEN DAKITE	79
3.3.2	ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ	80
3.3.3	EUSKARAZ ULERTZEN DUTE.....	81
3.3.4	EUSKARAZ IRAKURTZEN DAKITE	82
3.3.5	ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURTZEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ	83
3.3.6	EUSKARAZ IDAZTEN DAKITE.....	84
3.3.7	LEHEN HIZKUNTZA	85
3.3.8	ETXEKOEN ARTEAN ZENBAT EUSKALDUN	86
3.3.9	ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA.....	87
3.3.10	ETORKIZUNEAN EUSKAL HERRIAN HITZ EGITEA NAHIKO LUKETEN HIZKUNTZA.....	88
3.4	KARKARAREN SARBIDEA (IV): GAINERAKO KULTUR KONTSUMOEN ARABERA	89
3.4.1	TELEBISTA IKUSTEKO ETA ZEHAZKI ETB-1/ETB-3 IKUSTEKO OHITURA.....	90
3.4.2	IRRATIA ENTZUTEKO OHITURA, HIZKUNTZAREN ARABERA.....	91
3.4.3	EGUNKARIEN IRAKURKETA OROKORREAN	92
3.4.4	EGUNKARIEN IRAKURKETA, EGUNKARIZ EGUNKARI.HERRITAR GUZTIAK	93
3.4.5	EGUNKARIEN IRAKURKETA, EGUNKARIZ-EGUNKARI.ELEBIDUNAK	94
3.4.6	EUSKARAZKO BESTELAKO ALDIZKARIAK	95
3.4.7	LIBURUAK OROKORREAN.....	96
3.4.8	LIBURUAK EUSKARAZ	97
3.4.9	LIBURUEN KONTSUMO ERDALDUNA VERSUS EUSKALDUNA	98
3.4.10	INTERNETEN ERABILERA	99
4.	KARKARARI BURUZKO IRITZI OROKORRAK	100
4.1	BALORAZIO OROKORRA (0-10).....	101
4.2	BALORAZIO OROKORRA: AIARENTZAT ETA ORIORENTZAT ONA EDO TXARRA DEN KARKARA BEZALAKO ALDIZKARI BAT	104
4.3	BALORAZIO POSITIBOEN FUNTSA: HURBILTASUNA ETA PRODUKTUA VERSUS EUSKARA.....	106
4.3.1	ONDO BALORATZEKO ARRAZOIAK (I): GUSTURA IRAKURTZEA ETA BERTAKO BERRIAK EMATEA.....	107
4.3.2	ONDO BALORATZEKO ARRAZOIAK (II): EUSKARAZ IZATEA ETA EUSKARA SUSTATZEA	108
4.3.3	ONDO BALORATZEKO ARRAZOIAK (III): ARRAZOI NAGUSIA.....	109
4.4	EUSKARA ETA EUSKALKIA	110
4.4.1	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE	111
4.4.2	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, SEXUAREN ARABERA	112
4.4.3	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, ADINAREN ARABERA (HERRITAR GUZTIAK).....	113
4.4.4	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, ADINAREN ARABERA (ELEBIDUNAK).....	114
4.4.5	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, HERRIAREN ARABERA	115
4.4.6	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, IKASKETA MAILAREN ARABERA	116

4.4.7	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA.....	117
4.4.8	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, ETXEKO EUSKALDUN KOPURUAREN ARABERA.....	118
4.4.9	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZAREN ARABERA.....	119
4.4.10	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, KARKARA: EZAGUTZA ETA IRAKURKETA OHITURA LABURTUAREN ARABERA.....	120
4.4.11	ALDIZKARIKO EUSKARA ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE, AZKEN HILABETEAN BERRIA IRAKURRI DUTEN EDO EZ KONTUAN IZANDA (IRAKURLE ELEBIDUNAK).....	121
4.4.12	ALDIZKARIAK ERABILI BEHARKO LUKEEN EUSKARA (BATUA EDO BERTAKO EUSKALKIA).....	122
4.5	ILDO EDITORIALARI BURUZKO IRITZIAK.....	123
4.5.1	OROKORREAN ALBISTEAK OBJEKTIBOTASUNEZ TRATATZEN DITU.....	124
4.5.2	ALDIZKARI PLURALA EDO LERRATUA DA.....	125
4.5.3	LERROTUA DELA DIOTENEN IRITZIZ, NOREN ALDE EGITEN DU.....	126
4.5.4	HERRIKO UDALARI EMANDAKO TRATAMENDUARI BURUZKO IRITZIA.....	127
4.5.5	HERRIKO UDALARI EMANDAKO TRATAMENDUARI BURUZKO IRITZIA, UDALERRIAREN ARABERA.....	128
4.6	ALDIZKARIAREN DISEINUAZ ETA MAKETAZIOAZ IRITZIA.....	129
4.7	TESTUAK AURKEZTEKO MODUARI BURUZKO BALORAZIOA.....	131
4.8	KARKARA POSITIBOAN.....	133
4.9	KARKARA NEGATIBOAN.....	137
5.	IRITZIAK EDUKIZ EDUKI, GENEROZ GENERO.....	140
5.1	ZER DA LEHENENGO BEGIRATZEN DUTENA.....	141
5.2	FALTAN BOTATZEN DUTENA, ALDATUKO LUKETENA.....	144
5.3	KARKARAN LANDU DIREN GAIEKIKO INTERES MAILA.....	147
5.4	NORBERE HERRIKO ALBISTEEI ESKAINITAKO TOKIAZ IRITZIA.....	149
5.5	ARTIKULU MOTA EZBERDINAK ZEIN NEURRITAN DITUZTE GUSTUKO.....	151
6.	KARKARAREN INGURUKO BESTE GAI BATZUK: NORK ARGITARATZEN DU, BULEGOAREN EZAGUTZA, BANAKETAZ ETA FINANTZIAKETAZ.....	153
6.1	KARKARA NORK ARGITARATZEN DU.....	154
6.1.1	KARKARA NORK ARGITARATZEN DUEN DAKITE.....	155
6.1.2	NORK ARGITARATZEN DU.....	156
6.2	BULEGOAREN INGURUKOAK.....	157
6.2.1	BULEGOA NON DAGOEN DAKITE.....	158
6.2.2	BULEGOAN INOIZ IZAN DIRA.....	159
6.2.3	BULEGORA LASAI JOANGO LIRATEKE.....	160
6.3	BANAKETAZ.....	161
6.3.1	ZENBATERO IRISTEN ZAIE.....	162
6.4	FINANTZIAKETAZ.....	163
6.4.1	ORDAINTZEKO PREST EGONGO LIRATEKE.....	164
6.4.2	ERAKUNDE PUBLIKOAK KARKARA DIRUZ LAGUNTZEAREN INGURUKO IRITZIA.....	165
6.4.3	UDALAREN DIRU-LAGUNTZA NAHIKOA DA.....	166
7.	EUSKALDUNAK EZ DIREN HERRITARREN BIZIPENA EUSKARAZ DEN ALDIZKARIAREN AURREAN.....	167
8.	WWW.KARKARA.COM.....	169
8.1	INTERNET ERABILTZEKO OHITURA.....	170
8.2	KARKARAREN WEBGUNERA JOTZEKO OHITURA.....	172
8.3	WEBGUNETIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIENA.....	174
8.4	WEBGUNETIK GUTXIEN GUSTATZEN ZAIENA.....	176
I.	ERANSKINA: GALDERA- SORTAK.....	178
II.	ERANSKINA: TAULA GURUTZATUAK.....	197



[a]

K

Ondorengo orriotan, **Orioko Karkara Elkartearen** eskariz, 2009ko otsailean Orioko eta Aiako etxeetan egindako telefono bidezko inkestaren emaitzak aurkezten ditugu. Ikerlan honek, **Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak** emandako diru-laguntzari esker egin ahal izan du aurrera.

Azpimarratzekoa da Aiako eta Orioko herritarrek inkesta egiterakoan erakutsitako prestutasuna eta jarrera ona.

Baliagarria izan bedi azterketa hau **Karkara**ren eta tokiko euskal aldizkarien merkatuaren ezagutzan sakontzeko eta proiektu horiek sendotzeko.

0. METODOLOGIA OHARRAK



DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 15 urtetik gorako Orioko eta Aiako herritarrak (**5.739** lagun).

Lagina: **687** herritar.

Landa-lana: 2009ko otsailaren 12-28an egin dugu. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

Akats tarteak: $\pm 3,58$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0$ denerako.

ERABILITAKO TEKNIKA: Aiako eta Orioko herritarrei telefono bidezko elkarrizketa egituratua.

UNIBERTSOA: Inkesta egin zen garaian Orion eta Aian bizi ziren 15 urtetik gorako herritarrak. Garai horretan, zehazki, adin horretako **5.739** lagun zeuden erroldatuta herri bietan.

LAGINA:

- **Lagin teorikoa** (jarritako helburua): 15 urtetik gorako Aiako eta Orioko **680** herritar.
- **Lagin erreala** (egindakoa): Elkarrizketa baliogabeak baztertuta, azkenean **687** inkesta baliodunek osatu dute gure lagina.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, laginketa bi urratsetan egin dugu:

- Lehenik, **zori sistematikoaren** bidez telefonoz zein etxetara deitu, kale eta atarien hurrenkeran egin dugu, beti ere, udalerri bakoitzaren garrantzia kontuan hartuta. Zehazki, hona hemen udalerri bakoitzean egindako elkarrizketa baliodunen kopuruak:
 - Orioko: 501
 - Aia: 186
- Ondoren, etxeetan, kuoten sistema aplikatu dugu, horrela sexuaren eta adinaren arabera oreka ziurtatuz.

Ondorioz, ez dago desbideratze handirik, eta lagina unibertsoaren argazki fidela dela esan dezakegu.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi genituen gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta (ikus galdera-sorten eranskina). Galdera batzuk elkarrizketatu guztiei egin dizkiegu eta beste batzuk, berriz, jende multzo bati (aldizkaria ezagutzen zutenei, euskaldunei, erdaldunei, eta abar). Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin ditugunez, bi galdera-sorta erabili ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2009ko otsailaren 12-28an egin ditugu Orioko eta Aiako etxeetara telefonoz deituz. Oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da.

AKATS TARTEA: $\pm 3,58$ lagin osoarentzat, **%95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q$ $=50,0$ denerako.

AZPIUNIBERTSOAK ETA AZPILAGINAK

Zenbait galdera, elkarrizketatu guztiei egin dizkiegu, beste batzuk, berriz, herritarren multzo bati besterik ez. Emaitzak aurkeztu ditugunean, kasu bakoitzean zehaztu dugu, zein alorri dagokion. Ondorengo taulan, alor horiek guztiak zehazten ditugu.

AURKEZPEN TXOSTENEAN AZPIUNIBERTSOEN IZENDAPENA	AZALPENA
GUZTIAK	Elkarrizketatu guztiak
ELEBIDUNAK	Euskara ondo ulertu eta ondo hitz egiteko gai diren herritarrek
ERDALDUNAK ETA ELEBIDUN HARTZAILEAK	Euskara ondo ulertu eta ondo hitz egiteko gai ez diren herritarrek
EZAGULEAK	Karkara aldizkaria ezagutzen duten herritar guztiak
IRAKURLEAK	Karkara aldizkaria inoiz irakurri izan duten herritar guztiak
IRAKURLE LEHIALAK	Azken hiru hilabeteetan ale bat gutxienez irakurri edo gainbegiratu duten guztiak
IRAKURLEAK (KARKARAREN AZKEN ALEA IRAKURRI ZUTENAK) (PROFILAREN ATALEAN)	Profilen atalean, sail honetan hartu ditugu kontuan Karkararen azken alea irakurri duten herritar guztiak
IRAKURLE ELEBIDUNAK	Inoiz aldizkaria irakurri duten elebidunak

HIZKUNTZA-GAITASUNAREN SAILKAPEN XEHATUA

Herritarrek euskaraz bazekiten jakiteko eta zer mailatako ezagutza zuten jakiteko, galdera bat baino gehiago txertatu genuen galdera-sortan, gai horren inguruan ahalik eta informazio zehatzena eta aberatsena eskuratzeko. Zehazki, euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gaitasunari buruzko galderak egin genizkien elkarrizketatuei, zentsuetan erabiltzen den galdera ereduak erabiliz. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin ohi dituen Soziolinguistikazko Inkestetan ohikoak diren bi galdera ere egin genizkien euskaldunei: euskaraz ala erdaraz zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto hitz egiterakoan, batetik, eta irakurtzerakoan, bestetik.

Informazio horretan oinarrituta, aldagai bakarrean bildu dugu hizkuntza-gaitasunaren inguruko informazioa. Azkenean, eta zentsuetan eta Soziolinguistikazko Inkestetan erabili ohi diren sailkapen irizpideak kontuan hartuta, honako kategorietan sailkatu ditugu herritarrek, euren hizkuntza-gaitasunari erreparatuta:

- **Erdaldunak:** ez dute euskara ulertzen eta ez dute hitz egiten.

- **Elebidun hartzaileak:** euskara nekez edo ongi ulertzen dute, baina ez dute hitz egiten edo nekez hitz egiten dute.
- **Elebidunak:** euskara ondo ulertzen dute eta ondo hitz egiten dute.

Elebidunen barruan, halaber, honako multzo hauek egin ditugu (euskaraz ala erdaraz errazago zein hizkuntzatan moldatzen diren kontuan izanda):

- **Erdal elebidunak:** euskaraz hitz egiteko gai dira, baina erdaraz errazago mintzatzen dira, euskaraz baino.
- **Elebidun orekatuak:** euskaraz zein erdaraz, berdintsu moldatzen dira bietan.
- **Euskal elebidunak:** euskaraz errazago hitz egiten dute, erdaraz baino.

Horrela bada, egindako multzo eta azpimultzo guztiak kontuan hartuta, honako bost sail hauetan banatu ditugu Aiako eta Orioko herritarrak, euren hizkuntza-gaitasunaren arabera:

- **Erdaldunak**
- **Elebidun hartzaileak**
- **Erdal elebidunak**
- **Elebidun orekatuak**
- **Euskal elebidunak**

1. KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURA




1.1 KARKARA EZAGUTZEN DUTE

► *Aldizkaria ezagutzen al duzu?*

**(MAIZTASUNAK
(GUZTIAK))**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	680	99,0
Ez	7	1,0
Guztira	687	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009



> Orioko eta Aiako ia herritar guztiek (%99,0) ezagutzen dute **Karkara** aldizkaria.


1.2 INOIZ IRAKURRI EDO GAINBEGIRATU DUTE

► *Inoiz irakurri edo gainbegiratu al duzu?*

**MAIZTASUNAK
(EZAGULEAK)**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	621	91,3
Ez	59	8,7
Guztira	680	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009



> **Karkara** aldizkaria ezagutzen duten herritarren %91,3k inoiz irakurri edo gainbegiratu du aldizkaria.


1.3 KARKARA IRAKURTZEKO OHITURA

► *Noiz irakurri edo gainbegiratu duzu azken aldiz?*

**MAIZTASUNAK
(IRAKURLEAK)**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Azken bi asteotan	564	90,8
Azken 3 hilabeteotan	54	8,7
Azken urtean	2	0,3
Azken urtean ez	1	0,2
Guztira	621	100,0

Iturria: Aztiker, *Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009*



> **Karkara** aldizkaria inoiz irakurri edo gainbegiratu duten herritarren artean, hamarretik bederatzik azken bi asteotako alea ere irakurri dute. Beste %8,7k azken bi asteotakoa ez, baina azken hiru hilabeteotan irakurri du aldizkaria eta beste 0,3k azken urteko aldizkariren bat.


1.4 KARKARA IRAKURTZEN EMATEN DUTEN DENBORA

► *Zenbat denboraz irakurtzen duzu Karkara aldizkaria?*

**(MAIZTASUNAK
(IRAKURLEAK))**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
10 minutu edo gutxiago	80	12,9
11-20 minutu	146	23,5
21-30 minutu	207	33,4
30 minutu baino +	187	30,2
Guztira	620	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009



► **Karkara** aldizkaria irakurtzen duten herritarrek, 33,1 minutu ematen dute batez beste horretan. Horien artean, %36,4k 20 minutu edo gutxiago ematen dute aldizkaria irakurtzen, %33,4k 21 eta 30 minutu bitartean eta %30,2k ordu erdi baino gehiago.

**IRAKURTZEN EMANDAKO
DENBORAREN BATEZ BESTEKOA**

33,1


1.5 ALDIZKARIAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK KONTUAN HARTUTA, SAILKAPEN OROKORRA

► *Aldizkariaren ezagutza eta irakurtzeko ohiturak kontuan hartuta, sailkapen orokorra*

**MAIZTASUNAK
(GUZTIAK)**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ez dute ezagutzen	7	1,0
Ez dute inoiz irakurri	58	8,4
Irakurri dute, azken alea ez	58	8,4
Azken alea irakurri dute, 15 min edo gutxiagoz	148	21,5
Azken alea irakurri dute, 15 min baino +	416	60,6
Guztira	687	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009




> Orioko eta Aiako 15 urtetik gorako herritar guztiak kontuan hartuta, honela banatzen dira, **Karkara** ezagutzen duten eta irakurtzeko duten ohituraren arabera:

- %1,0k ez du ezagutzen.
- %8,4k ezagutu bai, baina ez du inoiz irakurri.
- %8,4k irakurri izan du, baina ez du azkeneko alea irakurri.
- Bostetik lau herritarrek baino gehiagok (%82,1) azken alea irakurri du.

1.6 KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK: KOPURU ABSOLUTUEN ESTRAPOLAZIOA

► *Kopuru absolutuen estrapolazioa*

**MAIZTASUNAK
(GUZTIAK)**



> Orain arteko ehunekoak Orioko eta Aiako kopuru absolutuetara ekarriz:

- 5.700 lagunek ezagutzen dute Karkara.
- 5.200 lagunek irakurri izan dute.
- 4.700 irakurle ditu batez beste ale bakoitzak.


	Herritar guztiekiko (%)	Herritarrek (Kopuru absolutuak)
Karkara ezagutzen dute	99,0	5.681
Inoiz irakurri edo gainbegiratu izan dute	90,5	5.196
Azken alea irakurri dute	82,1	4.711
Herritar guztiak (15 urte edo +)	100,0	5.739

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

1.7 KARKARAREN EZAGUTZA ETA IRAKURTZEKO OHITURAK HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA

1.7.1 SEXUA

**GURUTZAKETAK
(GUZTIAK)**




Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

› Gizonezko zein emakumezkoen artean ezagutza eta irakurketa maila antzekoak ditu **Karkarak**. Hala ere, indar apur bat handiagoz iristen da emakumeengana. Azken horiek, batez beste, denbora gehiago ematen dute aldizkaria irakurtzen gizonezkoek baino.

1.7.2 ADINA (HERRITAR GUZTIAK)


**GURUTZAKETAK
(GUZTIAK)**



Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

> Adin tarte guztietara indartsu iristen da **Karkara**. Hala ere, ezagunagoa eta irakurriagoa da gazteen artean.


1.7.3 ADINA (ELEBIDUNAK)



Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

> Elebidunak soilik kontuan hartuta, logikoa denez, ezagunagoa eta irakurriagoa da **Karkara**. Joerak, aldiz, bere horretan dirau: ezagunagoa eta irakurriagoa da gazte elebidunen artean, nahiz eta azken horiek denbora gutxiago ematen duten aldizkaria irakurtzen.

1.7.4 IKASKETA MAILA




Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

> Ez da alde garrantzitsurik antzematen ikasketa mailaren arabera datuak aztertuta. Unibertsitate-ikasketak dituztenek denbora luzeagoz irakurtzen dute **Karkara**. Hala ere, aldea oso txikia da. **Karkara** idatzizko produktu bat izanik, ikasketa mailaren araberrako alde garrantzitsurik ez izatea, aldizkari honen merkatu zabalaren erakusgarritzat jo dezakegu.

1.7.5 HIZKUNTZA-GAITASUNA


**GURUTZAKETAK
(GUZTIAK)**



Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

> Harreman estua dago hizkuntza-gaitasunaren eta **Karkara** ezagutzearen eta irakurtzeko ohituraren artean: alor "euskaldunagoetan" gehiago irakurtzen da alor "erdaldunagoetan" baino. Euskarazko hedabide bat izanik, ezin zitekeen bestela izan. Hain justu harreman logiko horrez gain, aipagarriena **Karkarak** erdaldunen eta (batez ere) elebidun hartzaileen artean lortzen duen arrakasta dugu. Elebidun hartzaile guztiek eta erdaldun gehienek ezagutzen dute, eta azken alea erdaldunen %46,9k eta elebidun hartzaileen %70,8k irakurri zuten.

1.7.6 BEZPERAN ETB-1/ETB-3 IKUSI ZUTEN (EUSKALDUNAK)




Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia 2009

> Korrelazio positiboa dago **Karkara** irakurtzeko ohituraren eta ETB-1 edo ETB-3 ikustearen artean. Horrela, bezperan euskarazko kateren bat ikusi zuten euskaldunek gehiago dira eta denbora luzeagoz irakurri ohi dute **Karkara** euskarazko telebista ikusi ez zutenek baino.

1.7.7 AZKEN HILABETEAN BERRIA IRAKURRI ZUTEN (EUSKALDUNAK)

GURUTZAKETAK
(ELEBIDUNAK)



Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritzia, Orio-Aia 2009

› Korrelazio positibo argia dago **Karkara** irakurtzearen eta **Berria** irakurtzearen artean. Horrela, azken hilabeteen **Berria** irakurri zuten euskaldunek gehiago irakurri ohi dute **Karkara** irakurri ez zutenek baino, eta era berean, bezperan **Berria** irakurritakoek gainontzekoek baino gehiago eta luzeagoz irakurri zuten aldizkaria.

2. KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA




2.1 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (I): ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

2.1.1 SEXUA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumea	340	49,5	301	49,6	288	51,1
Gizona	347	50,5	306	50,4	276	48,9
Guztira	687	100,0	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Aldea txikia bada ere, emakumezkoek pisu handiagoa dute **Karkara**ren irakurleen artean, gizonezkoek baino.

2.1.2 ADINA

MAIZTASUNAK
 (...)

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
15-34 urte	211	30,7	194	32,0	179	31,7
35-54 urte	260	37,8	218	35,9	211	37,4
55 urte edo +	216	31,4	195	32,1	174	30,9
Guztira	687	100,0	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Adinari dagokionez, oso orekatua azaltzen zaigu **Karkara**ren irakurlegoa.

2.1.3 HERRIA

**(MAIZTASUNAK
...)**

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
AIA	186	27,1	177	29,2	148	26,2
ORIO	501	72,9	430	70,8	416	73,8
Guztira	687	100,0	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, *Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009*




> **Karkara**ren irakurleen artean pisu handiagoa dute Orioko herritarrek Aiakoek baino (ez da harritzekoa, bi udalerri horien neurriak kontuan hartuta).

2.1.4 IKASKETA MAILA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Batere ez	31	4,5	28	4,6	22	3,9
Oinarrizkoak / OHO	290	42,5	256	42,4	246	43,9
Oinarrizko Batxilergoa / DBH (ESO)	56	8,2	52	8,6	46	8,2
Lanbide Heziketa 1 (FP1)	33	4,8	28	4,6	22	3,9
Lanbide Heziketa 2 (FP2) / Erdi-mailako ikasketak	99	14,5	88	14,6	84	15,0
Goi-mailako batxilergoa	27	4,0	25	4,1	23	4,1
BBB/ UBI / LOGSE batxilergoa (BUP / COU)	23	3,4	20	3,3	16	2,9
Hizkuntzak	2	0,3	1	0,2	1	0,2
Goi-mailako Lanbide Heziketa (Ingeniaritza eta Arkitektura te	18	2,6	16	2,6	18	3,2
Erdi-goï mailako ikasketak	37	5,4	28	4,6	28	5,0
Goi-mailako ikasketak (lizentziaturak)	65	9,5	60	9,9	54	9,6
Doktoregoa / Masterra	2	0,3	2	0,3	1	0,2
Guztira	683	100,0	604	100,0	561	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




› Ikasketa mailari dagokionez, oso zabala da **Karkara**ren irakurleen profila, aldizkariaren hedapen zabalaren erakusgarri. Oinarrizko ikasketak (batez ere) eta lanbide edo erdi-mailako ikasketak dituztenak nabarmentzen dira, hala eta guztiz ere.

2.1.5 LAN-EGOERA

(**MAIZTASUNAK**
(...))

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Zure kontura egiten duzu lan	79	11,5	71	11,8	61	10,9
Kooperatibista	1	0,1	1	0,2	1	0,2
Besteren kontura egiten duzu lan	263	38,5	230	38,1	223	39,8
Langabezian	37	5,4	29	4,8	25	4,5
Etxeko lanak	87	12,7	73	12,1	78	13,9
Ikaslea	53	7,7	52	8,6	45	8,0
Lana egiten duen ikaslea	10	1,5	10	1,7	9	1,6
Erretiroduna, pentsionista	129	18,9	118	19,5	99	17,6
Beste	25	3,7	20	3,3	20	3,6
Guztira	684	100,0	604	100,0	561	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009



› Lan jarduerari dagokionez, askotarikoa da **Karkara**ren irakurleen profila. Bostetik bik besteren kontura egiten dute lan (%39,8), eta ondoren datoz erretiroadunak, etxeko lanetan dihardutenak eta norbere kontura lan egiten dutenak.


2.2 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (II): ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK

2.2.1 HIZKUNTZA-GAITASUNA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erdaldunak			15	2,7
Elebidun hartzaileak			34	6,0
Erdal elebidunak	102	16,8	76	13,5
Elebidun orekatuak	168	27,7	150	26,6
Euskal elebidunak	337	55,5	289	51,2
Guztira	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




› Logikoa den bezala, **Karkara**ren irakurle gehienak (%91,3) euskaldunak dira. Alabaina, nabarmentzekoa da **Karkara**ren irakurleen artean erdaldunek eta elebidun hartzaileek duten pisua (%2,7 eta %6,0 hurrenez hurren).

2.2.2 EUSKARAZ ULERTZEN DUTE

**[MAIZTASUNAK
(...)]**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Ezer ez			15	2,7
Nekez			26	4,6
Ondo	607	100,0	523	92,7
Guztira	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritzia, Orio-Aia, 2009




> Irakurle ia guztiek (%92,7) diote ondo ulertzen dutela euskaraz; %4,6k nekez eta %2,7k dio ez duela euskara ulertzen.

2.2.3 EUSKARAZ HITZ EGITEN DAKITE

**(MAIZTASUNAK
 (...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ezer ez			27	4,8
Nekez			21	3,7
Ondo	607	100,0	516	91,5
Guztira	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurleen %91,5ek dio ondo hitz egiten duela euskaraz; %3,7k nekez eta %4,8k dio ez dakiela euskaraz hitz egiten.

2.2.4 ELEBIDUNAK ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ

**(MAIZTASUNAK
...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erdaraz errazago	102	16,8	77	14,9
Berdin euskaraz zein erdaraz	168	27,7	150	29,1
Euskaraz errazago	337	55,5	289	56,0
Guztira	607	100,0	516	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurle euskaldunen artean, gehiago dira euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direla diotenak, erdaraz euskaraz baino hobeto egiten dutela diotenak baino.

2.2.5 EUSKARAZ IRAKURTZEN DAKITE

**(MAIZTASUNAK
...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ezer ez			27	4,8
Nekez	68	11,2	78	13,8
Ondo	539	88,8	459	81,4
Guztira	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurleen bostetik lauk (%81,4) diote ondo irakurtzen dutela euskaraz; %13,8k dio nekez irakurtzen duela eta %4,8k ez dakiela euskaraz irakurtzen.

2.2.6 ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURTZEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ

**(MAIZTASUNAK
 (...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Erdaraz errazago	330	54,5	269	52,1
Berdin euskaraz zein erdaraz	156	25,7	137	26,6
Euskaraz errazago	120	19,8	110	21,3
Guztira	606	100,0	516	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurle euskaldunen artean, askoz gehiago dira erdaraz euskaraz baino hobeto irakurtzen dutela diotenak, euskaraz erdaraz baino hobeto egiten dutela diotenak baino.

2.2.7 EUSKARAZ IDAZTEN DAKITE

MAIZTASUNAK
 (...)

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ezer ez	6	1,0	43	7,6
Nekez	130	21,4	118	20,9
Ondo	471	77,6	403	71,5
Guztira	607	100,0	564	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurle gehienek (%71,5) diote ondo idazten dutela euskaraz; %20,9k nekez eta %7,6k dio ez dakiela euskaraz idazten.

2.2.8 LEHEN HIZKUNTZA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	542	89,6	475	84,5
Gaztelania	39	6,4	69	12,3
Biak	23	3,8	15	2,7
Besterik	1	0,2	3	0,5
Guztira	605	100,0	562	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkara**ren irakurleen gehiengo zabalak (%84,5) euskara izan zuten etxeko lehen hizkuntza; %12,3k, berriz, gaztelania.

2.2.9 HIZKUNTZA-EREDUA IRAKASKUNTZAN

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
X ereduan (Ikasgai guzti guztiak erdaraz)	330	54,6	311	55,5
A ereduan (euskara ikasgai gisa, beste guztia erdaraz)	74	12,3	74	13,2
B ereduan (erdi eta erdi)	16	2,6	16	2,9
D ereduan (erdara ikasgai gisa, beste guztia euskaraz)	184	30,5	159	28,4
Guztira	604	100,0	560	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Irakurleen laurdenak (%27,1) euskara izan du eskolako hizkuntza nagusi; %2,5ek euskara eta erdara erdia eta erdia, eta gehienek (%70,4) erdara izan dute eskolako hizkuntza nagusi edo bakarra.

2.2.10 ETXEKOEN ARTEAN ZENBAT EUSKALDUN

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Guztiak erdaldunak			8	1,4
Erdiak edo gehiago erdaldunak	25	4,1	33	5,9
Erdiak baino gehiago euskaldunak	46	7,6	63	11,2
Guztiak euskaldunak	533	88,2	457	81,5
Guztira	604	100,0	561	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




› **Karkara**ren irakurleen gehiengo handia (%81,5) guztiak euskaldun diren etxeetan bizi dira; %1,4koa baino ez da guztiak erdaldun diren etxeetan bizi direnak; gainerakoak euskaldunez eta erdaldunez osatutako etxeetan bizi dira.

2.2.11 ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erdaraz soilik	7	1,3	20	4,0
Erdaraz euskaraz baino gehiago	31	5,8	40	8,1
Erdaraz eta euskaraz, bietan berdin	55	10,3	54	10,9
Euskaraz erdaraz baino gehiago	97	18,2	83	16,8
Euskaraz soilik	343	64,4	298	60,2
Guztira	533	100,0	495	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




› **Karkararen** irakurleen etxe gehienetan (%60,2) euskaraz soilik mintzatzen dira. Aurkako muturrean, %4,0an erdaraz besterik ez da mintzatzen. Tarteko erantzunetan indar handiagoa dute euskarara jotzen duten erantzunek, erdarara jotzen dutenek baino.

2.2.12 ETORKIZUNEAN EUSKAL HERRIAN HITZ EGITEA NAHIKO LUKETEN HIZKUNTZA

**(MAIZTASUNAK
 (...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erdaraz soilik				
Erdaraz euskaraz baino gehiago			3	0,5
Erdaraz eta euskaraz, bietan berdin	95	15,8	104	18,6
Euskaraz erdaraz baino gehiago	307	50,9	286	51,2
Euskaraz soilik	201	33,3	166	29,7
Guztira	603	100,0	559	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009



› Euskal Herrian etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egitea nahiko luketen galdetuta, **Karkara**ren irakurleen bostetik lauk, euskara nagusi litzatekeen hizkuntza egoera nahiago dute. Beste %18,6k euskara eta erdara, biak berdin, hitz egingo litzatekeen egoera nahiago dute.


2.3 KARKARAREN IRAKURLEEN PROFILA (III): GAINERAKO KULTUR KONTSUMOEN ARABERA

2.3.1 TELEBISTA IKUSTEKO ETA ZEHAZKI ETB-1/ETB-3 IKUSTEKO OHITURA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Ez zuen TB ikusi	238	39	201	39,3
Ikusi zuen baina ETB1 edo ETB3 ez	57	9	45	8,8
ETB1 edo ETB3 ikusi zuen, baina besteak gehiago	160	26,5	140	27,3
ETB1 edo ETB3 gehien ikusi z(it)uena(k)	88	14,6	74	14,5
ETB1 edo ETB3 besterik ez zuen ikusi	60	10,0	52	10,2
Guztira	603	100,0	512	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Bezperan irakurleen %24,7k ikusi zuen euskarazko telebista nagusiki edo soilik; %36,1ak erdal telebistetara jo zuen nagusiki edo soilik eta %39,3k ez zuen telebistarik ikusi.

2.3.2 IRRATIA ENTZUTEKO OHITURA, HIZKUNTZAREN ARABERA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Ez du irratia entzuteko ohiturarik	172	28,5	141	27,5
Entzuten du, guztia erdaraz	24	4,0	18	3,5
Entzuten du, gehiena erdaraz	31	5,1	24	4,7
Entzuten du, euskaraz eta erdaraz bietara berdin	90	14,9	71	13,8
Entzuten du, gehiena euskaraz	105	17,4	90	17,5
Entzuten du, guztia euskaraz	182	30,1	169	32,9
Guztira	604	100,0	513	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




› **Karkararen** irakurleen artean, irratia euskaraz kontsumitzeko ohitura da nagusi. %27,5ek ez du irratia entzuteko ohiturarik.

2.3.3 EGUNKARIEN IRAKURKETA OROKORREAN

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	554	81,0	486	80,5	464	82,7
Ez	130	19,0	118	19,5	97	17,3
Guztira	684	100,0	604	100,0	561	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009



> **Karkara**ren irakurle gehienek (%82,7) egunkariren bat irakurri dute azken hilabetea; %17,3k, aldiz, ez du bakarera ere irakurri.

2.3.4 EGUNKARIEN IRAKURKETA, EGUNKARIZ EGUNKARI


**(MAIZTASUNAK
(...))**

		Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
		Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Diario Vasco	Azken hilabeteaz ez	193	28,4	179	29,9	153	27,5
	Azken hilabeteaz	231	34,0	197	32,9	190	34,2
	Bezperan irakurri dute	255	37,6	223	37,2	213	38,3
	Guztira	679	100,0	599	100,0	556	100,0
Urola Kostako Hitza	Azken hilabeteaz ez	570	83,6	492	81,7	455	81,4
	Azken hilabeteaz	63	9,2	61	10,1	55	9,8
	Bezperan irakurri dute	49	7,2	49	8,1	49	8,8
	Guztira	682	100,0	602	100,0	559	100,0
Gara	Azken hilabeteaz ez	598	87,6	524	86,9	485	86,6
	Azken hilabeteaz	61	8,9	56	9,3	54	9,6
	Bezperan irakurri dute	24	3,5	23	3,8	21	3,8
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
Noticias de Gipuzkoa	Azken hilabeteaz ez	616	90,2	542	89,9	504	90,0
	Azken hilabeteaz	35	5,1	33	5,5	29	5,2
	Bezperan irakurri dute	32	4,7	28	4,6	27	4,8
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
Berria	Azken hilabeteaz ez	578	84,6	501	83,1	465	83,0
	Azken hilabeteaz	60	8,8	59	9,8	52	9,3
	Bezperan irakurri dute	45	6,6	43	7,1	43	7,7
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0

KARKARA ALDIZKARIA:
IRAKURLEAK ETA IRITZIAK. ORIO-AIA, 2009

Deia	Azken hilabeteen ez	672	98,4	593	98,3	550	98,2
	Azken hilabeteen	9	1,3	8	1,3	9	1,6
	Bezperan irakurri dute	2	0,3	2	0,3	1	0,2
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
El Mundo	Azken hilabeteen ez	676	99,0	596	98,8	553	98,8
	Azken hilabeteen	5	0,7	5	0,8	5	0,9
	Bezperan irakurri dute	2	0,3	2	0,3	2	0,4
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
El País	Azken hilabeteen ez	661	96,8	585	97,0	540	96,4
	Azken hilabeteen	17	2,5	15	2,5	17	3,0
	Bezperan irakurri dute	5	0,7	3	0,5	3	0,5
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
Doakoak	Azken hilabeteen ez	675	98,8	596	98,8	553	98,8
	Azken hilabeteen	6	0,9	5	0,8	6	1,1
	Bezperan irakurri dute	2	0,3	2	0,3	1	0,2
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0
Beste	Azken hilabeteen ez	639	93,6	567	94,0	525	93,8
	Azken hilabeteen	24	3,5	20	3,3	22	3,9
	Bezperan irakurri dute	20	2,9	16	2,7	13	2,3
	Guztira	683	100,0	603	100,0	560	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkara**ren irakurleek gehien irakurtzen duten egunkaria *Diario Vasco* da (irakurleen %38,3k irakurri zuten bezperan). Atzetik datoz, *Urola Kostako Hitza* (%8,8), *Berria* (%7,7), *Noticias de Gipuzkoa* (%4,8) eta *Gara* (%3,8).

2.3.5 EUSKARAZKO BESTELAKO ALDIZKARIAK

MAIZTASUNAK
 (...)

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	68	11,3	61	11,9
Ez	536	88,7	452	88,1
Guztira	604	100,0	513	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkararen** irakurleen gehiengo zabalak (%88,1) ez du etxean euskarazko bestelako aldizkaririk jasotzen.

2.3.6 LIBURUAK OROKORREAN

**(MAIZTASUNAK
...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Batere ez	298	49,3	254	49,4
1-3 liburu	127	21,0	104	20,2
4-9 liburu	110	18,2	96	18,7
10 liburu edo +	70	11,6	60	11,7
Guztira	605	100,0	514	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkararen** irakurleen ia erdiak (%49,4) ez du liburuak irakurtzeko ohiturarik adierazten. Aurkako muturrean, %11,7k urtean 10 liburu edo gehiago irakurtzen dituela esan digu.

2.3.7 LIBURUAK EUSKARAZ

**(MAIZTASUNAK
...)**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bat ere ez	442	73,1	373	72,6
1-3 liburu	118	19,5	99	19,3
4-9 liburu	36	6,0	34	6,6
10 liburu edo +	9	1,5	8	1,6
Guztira	605	100,0	514	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkararen** irakurleen %72,6k ez dute euskarazko liburuak irakurtzeko ohiturarik adierazten. Aurkako muturrean, irakurleen %1,6k diote urtean euskarazko 10 liburu edo gehiago irakurtzen dituztela.

2.3.8 LIBURUEN KONTSUMO ERDALDUNA VERSUS EUSKALDUNA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Liburu guztiak erdaraz	144	46,9	119	45,8
Gehienak erdaraz	78	25,4	65	25,0
Erdia eta erdia	40	13,0	36	13,8
Gehienak euskaraz	19	6,2	17	6,5
Guztiak euskaraz	26	8,5	23	8,8
Total	307	100,0	260	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Libururik irakurtzen ez dituztenak alde batera utzita, **Karkararen** irakurleen ia erdiak (%45,8) erdara hutsean egiten du bere liburu kontsumoa. Liburu guztiak euskaraz %8,8ak irakurtzen du.

2.3.9 INTERNETEN ERABILERA

**(MAIZTASUNAK
(...))**

	Herritar guztiak		Elebidunak		Irakurleak (Karkararen azken alea irakurri zutenak)	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inoiz ez du erabili	319	46,6	287	47,5	263	46,9
Ia inoiz ez (urtean behin baino gutxiago)	18	2,6	15	2,5	13	2,3
Urtean behin gutxienez	1	0,1	1	0,2	1	0,2
Hilabetean behin gutxienez	31	4,5	25	4,1	24	4,3
Astean behin gutxienez	112	16,4	90	14,9	92	16,4
Egunero edo ia egunero	203	29,7	186	30,8	168	29,9
Guztira	684	100,0	604	100,0	561	100,0

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> **Karkararen** irakurleen %46,9k ez du inoiz Internet erabili. Aurkako muturrean, %29,9k egunero edo ia egunero jotzen du Internetera.

3. KARKARAREN SARBIDEA

[a]

K

3.1 KARKARAREN SARBIDEA (I): DATU OROKORRAK



SARBIDEA (%)
 (...)

› Sarbideak, **Karkara**ren ale bat, batez beste, zenbat jendek irakurtzen duen adierazten du. Inkestaren emaitzen arabera, herritar guztiak kontuan hartuta, %82,1ekoa da **Karkara**ren sarbidea. **Karkara** euskarazko aldizkaria dela kontuan izanik, elebidunen artean duen sarbideari erreparatuta, kopuru hori %84,8raino igotzen da.

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Sarbidea	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, *Karkara* aldizkaria: irakurleak eta iritzia, Orio-Aia, 2009


3.2 KARKARAREN SARBIDEA (II): ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOEN ARABERA

3.2.1 SEXUA

**[SARBIDEA (%)
(...)**

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Emakumea	84,7	86,7
Gizona	79,5	83,0
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, *Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009*



> Herritar guztiak zein elebidunak kontuan hartuta, biak ala bietan, sarbide handiagoa du **Karkarak** emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino.


3.2.2 ADINA

SARBIDEA (%)
 (...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
15-34 urte	84,8	87,1
35-54 urte	81,2	83,5
55 urte edo +	80,6	84,1
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009

› Sarbide handixeagoa du **Karkarak** gazteen artean, gainontzeko adin tarteetan baino.




3.2.3 HERRIA

[SARBIDEA (%)]
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
AIA	79,6	80,2
ORIO	83,0	86,7
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009

› Sarbide handixeagoa du **Karkarak** Orion Aian baino, herritar guztiak zein elebidunak soilik kontuan hartuta.




3.2.4 IKASKETA MAILA

[SARBIDEA (%)]
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Oinarrizkoak edo batere ez	82,0	84,6
Ertainak	82,1	84,3
Unibertsitate-ikasketak	82,8	85,8
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009



> Ikasketa mailaren ikuspegitik, herritar guztiak zein elebidunak soilik kontuan harturik, sarbide antzekoa du **Karkarak** oinarrizko ikasketak, ertainak edo unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.


3.2.5 LAN-EGOERA

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Zure kontura egiten duzu lan	77,2	81,7
Kooperatibista	100,0	100,0
Besteren kontura egiten duzu lan	84,8	86,1
Langabezian	67,6	79,3
Etxeko lanak	89,7	91,8
Ikaslea	84,9	84,6
Lana egiten duen ikaslea	90,0	90,0
Erretiroduna, pentsionista	76,7	80,5
Beste	80,0	85,0
Guztira	82,0	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009

SARBIDEA (%)

> Elebidunak soilik kontuan hartuz, kooperatibisten artean, etxeko lanetan diharduten artean eta lana egiten duten ikasleen artean du **Karkarak** sarbide handien. Langabeen eta erretirodunen artean du sarbiderik ahulena.




3.3 KARKARAREN SARBIDEA (III): ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA

3.3.1 HIZKUNTZA-GAITASUNA

[SARBIDEA (%)]
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Erdaldunak	46,9	
Elebidun hartzaileak	70,8	
Erdal elebidunak	74,5	74,5
Elebidun orekatuak	89,3	89,3
Euskal elebidunak	85,8	85,8
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009



> **Karkara**ren sarbidea errotik aldatzen da herritarren hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta. Ezin bestela izan euskarazko aldizkari bat izanik: oro har, zenbat eta euskara-gaitasun handiagoa, orduan eta irakurketa-maila handiagoa.

Azpimarragarria da euskara-gaitasun handiena duten herritarren artean **Karkarak** duen sarbidea, goia jotzetik hurbil egon daitekeela: elebidun orekatuen artean %89,3koa da sarbidea eta %85,8koa euskal elebidunen artean.

Hala ere, bereziki nabarmentzekoa da **Karkarak** erdaldunen artean eta elebidun hartzaileen artean lortutako sarbidea: erdaldunen ia erdiak (%46,9) eta elebidun hartzaileen %70,8k irakurri edo begiratu dute **Karkara**ren azken alea.


Logika hori bera islatzen dute ondorengo orrietako datuek. Sarbidea aldatu egiten da euskaraz hitz egiteko, ulertzeko, irakurtzeko eta idazteko herritarrek duten gaitasunaren arabera. Eta aldatu egiten da, halaber, lehen hizkuntzaren eta norbere testuinguru soziolinguistikoaren arabera. Oinarri soziolinguistikoak, hortaz, zerikusi zuzena du **Karkara**ren sarbidean.

EUSKARAZ HITZ EGITEN DAKITE

[SARBIDEA (%)]
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Ezer ez	55,1	
Nekez	70,0	
Ondo	84,9	84,8
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




3.3.2 ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ

**(SARBIDEA (%))
(ELEBIDUNAK)**

	Elebidunak %
Erdaraz errazago	74,5
Berdin euskaraz zein erdaraz	89,3
Euskaraz errazago	85,8
Guztira	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




3.3.3 EUSKARAZ ULERTZEN DUTE

[SARBIDEA (%)]
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Ezer ez	46,9	
Nekez	65,0	
Ondo	85,0	84,8
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




3.3.4 EUSKARAZ IRAKURTZEN DAKITE

(SARBIDEA (%))
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Ezer ez	54,0	
Nekez	82,1	86,8
Ondo	84,7	84,6
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




3.3.5 ELEBIDUNEK ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURTZEN DUTE ERRAZAGO, EUSKARAZ ALA ERDARAZ

**(SARBIDEA (%)
(ELEBIDUNAK))**

	Elebidunak %
Erdaraz errazago	81,5
Berdin euskaraz zein erdaraz	87,2
Euskaraz errazago	91,7
Guztira	85,0

Iturria: Aztiker, *Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009*




3.3.6 EUSKARAZ IDAZTEN DAKITE

SARBIDEA (%)
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Ezer ez	66,2	100,0
Nekez	78,1	81,5
Ondo	85,6	85,6
Guztira	82,1	84,8

Iturria: Aztiker, Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritziak, Orio-Aia, 2009




> Orokorrean, sarbide handiagoa du **Karkarak** euskaraz idazten dakitenen artean, gainerakoen artean baino. Datuek erakusten duten salbuespena (%100,0eko sarbidea euskaraz idazten ez dakiten elebidunen artean) ezin da aintzat hartu. Izan ere, alor horren datuaren oinarrian dagoen azpilaginaren neurria dela-eta (6 inkesta besterik ez) ezin dugu datu hori orokortu.

3.3.7 LEHEN HIZKUNTZA

(SARBIDEA (%))
(...)

	Herritar guztiak %	Elebidunak %
Euskara	86,5	86,5
Gaztelania	63,9	71,8
Biak	60,0	65,2
Besterik	100,0	100,0
Guztira	82,0	84,8

